



Ligatu XXI. mendean. *Sarriago eta hobeto?*





Gidoirako

Harremanak: erraz, ugari

- Ohiturak, hiriko bizimodu, garraio erraztasuna... Harreman aukera ugari.
- Sare sozialak, webguneak, *speed date*-ak... elkartzeko era berriak.
- Askatasun osoa: norbere burua plazaratzeko, laguna hautatzeko, uzteko...
- Jolas atsegin, etengabea: norbaitekin gustatu, aspertu... Sexua, noiznahi.
- Denentzat aukera: itsusientzat, lotsatientzat, pobrentzat...

Harremanak: beti bezala

- Aurrez aurre eta poliki maitemindu: harreman sendo, egonkorrak.
- Gezurra, itxurakeria: behin-behineko bikotekideen arteko jolasak.
- Erromantizismo galdua: maitasun-gutunak, lore sortak; lilura.
- Arriskua: intimidadea nolanhizabaldur, mehatxuak, erasoak...
- Lehen, orain, beti: polita, atsegina, aberatsa... erakargarriagoa.



Ezkongaien **%40** gogotsu bikotekide bila

%74 oso txukun prestatu lehen aurrez aurrekorako

%94 rentzat lehen begiratu, funtsezkoa

Kaixo Maitia: **4.503** erabiltzaile

Badoo: **94** milioi erabiltzaile

Tinder: egunean **26** milioi aurrez aurreko

Ligatu XXI. mendean

Aurten nire aiton-amonen urrezko ezteiak dira, eta izugarria iruditzen zaít bi pertsona 50 urtez elkarrekin egon ahal izatea. Egia da antzina oso goiz ezkontzen zirela eta erlijioa dela eta banatzea ez zegoela batere ondo ikusita. Hala ere, ia bizitza osoa pertsona berberarekin egoteak zoramena dirudi. Izan ere, gaur egun ba al da bizitza osorako bikoterik?

← Ort.

← Lot./Kohs.

Egia esan, ez dut uste asko egongo direnik, jendea etengabe banatzen delako, minuturo. Baliteke izatea gaur egun jende berria ezagutzeko errezitasun handiagoa dugulako, teknologia berriei esker, eta daramagun bizimodu frenetiko honi esker. Sozialki bikotekidea izatea da egokiena eta jendea etengabe bilatzen ari da bere mutil edo neska perfektu hori. Horretarako, asko lehen aipatutako teknologia berriez baliatzen dira eta beste batzuk, berriz, patuaren esku uzten dute.

← Ort.

Teknologia berrien bidez ligatzen duten guzti horiek, oso erraza daukate, egia esanda. Ehundara aplikazio daude bikotekidea bilatzeko, eta hauetan, behin datuak sartuta, zurekin bateragarriena den pertsona aurkitzen dizute. Hori bai, datu pertsonalak jartzerakoan, hauak benetakoak ez badira, arazoak sor daitezke, ez dakizulako nor ager dakizukeen, eta arriskutsua izan daiteke. Horrek ez du esan nahí ezinezkoa denik bikotekidea internetez aurkitzea, sofa gainetik mugitu gabe, baina bai, nire ustez, nahiko zaila dena.

← Ort.

← Lot./Kohs.

← Lot./Kohs.

← Lot./Kohs.

← Sint.

Bestalde, nire ustez maitasuna ez da etengabe bilatu behar, bortxatu gabe ager daiteke edozein momentutan. Horretarako, lagungarria da jarduera jendetsuetan parte hartzea; edo jendearekin hartu-eman mínimo bat edukitzea, zeren eta etxean sartuta egun osoan ezer gutxi aurkituko duzu. Gimnasioan, sukaldatzeko ikastaroetan, bidaietan... horietan sor daiteke momentu egokia bikotekidea lortzeko.

← Punt.

Nire ustez, adin jakin hatekin aurrera, eta bakarrik jende berria ezagutzeko arazoak badituzu, erabili beharko lirateke interneteko baliabideak. Maitasuna edozein momentutan sor daitekeelako, bai zarama ateratzean edo mendira paseo bat ematera goazenean. Oraindik 18 urte besterik ez ditut, baina espero dut internet bidez ligatzea nire azken aukera izatea.

← Dek.



PROBA IDATZIA

IDAZLAN EREDUAK

IDAZLAN LUZEA

(2016ko 2. deialdia-2)

Kalifikazioa: 6

**Aztertzaileen zehaztasunak: +: 1, 2, 3, 5, 9
-: 4, 12, 21**

EGOKITASUNA/EDUKIA: 2,5

Atazak eskatzen diona ondo bete du. Ideia eta iritzi ugari ematen du. Informazio nahikoa eman du eta bere iritziak eta ikuspuntua ere egoki azaldu ditu.

MOLDEA, KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 1,5

Idea nagusiak ondo adierazi ditu eta ondorioak ateratzeko gai izan da.

Paragraforen batean, ideia konplexuagoak azaltzerakoan, nahasi egin da eta pasarte horiek ilunak dira. (2. eta 3. paragrafoak). Kohesio mailako akatsek oztopatzen dute ulergarritasuna pasarte horietan. 4. paragrafoan ideien progresioa ez da egokia, atzera-aurrera ari da.

ZUZENTASUNA: 2

Deklinabide eta sintaxia mailako akats batzuk ditu. Ortografian ere akatsak egin ditu, eta horien arteko ia guztiak ez dituelako Euskaltzaindiaren arauen azken urteetako erabakiak aintzat hartu.